

KORONABIRUSA - ATZOKO DATUAK

GIPUZKOAN		NAFARROAN	
98	21	214	49
positibo berri	hildako	positibo berri	hildako
661	201	1411	649
positibo guztira	ospitalizatuta	positibo guztira	ospitalizatuta

Hernanin 17 (berriak 2), Astigarragan 4 (berriak ez)

«Guretzako hartu diren bezala hartu behar dira neurriak, presoan osasuna garantizatze aldera»

Hilabeteko azken ostirala izanik, eta Koronabirusari aurre egiteko presoekin komunikatzeko bideak eten direnez, «elkartasun eta aldarriei lekua» egiteko dei egin dute Etxerat eta Sarek gaur, 19:00etarako.

URUMEA ETXERAT ETA SARE

«Espetxez espetxe datuak oso aldakorak» direla aitortzen du Urtzi Errazkinek, Etxeraterako ordezkariak. «Hartu dira neurri batzuk espetxeetan, baina eskatzen duguna da neurriak hartu behar direla guretzako hartu diren bezala, presoan osasuna garantizatze aldera».

Komunikazioak, etenda

Hain zuzen, Koronabirusari aurre egiteko ezarritako konfinamendu egoera dela-eta, «espetxeetan hartu den neurri zail eta gogorrena komunikazioak eten» izana dela aipatzen du, «bisita guztiak: bis a bisak, kristal aurrekoak. Horrek urruntasun haundiagoa dakar». Honen aurrean, dio «XXI. mendean bideokonferentziak egiteko aukera eta doakoa» eman behar litzatekeela, «senideekin harremana ez eteteko».

Ildo beretik, Correosek hartutako neurriari aurre egiteko herriarrei dei ere egin die. «Correosen neurria da, oraingoz, eskutitzak bakarrik banatuko dituela». Prentsarik ez da iristen dagoeneko, adibidez, kartzetelara. «Eskatzen dugu momentu honetan, inoiz baino gehiago, eta denbora daukagunez, ahal dugun neurrian presoari idaztea, gertuago senti daitezten. Presoan helbide guztiak www.etxerat.eus gunean daude».



Urtzi Errazkinek, Etxeraterako ordezkariak, hausnarketarako dei egin du.

«Pentsa zer izan behar den 20 urtez etxean ez, baizik eta gela batean egon beharra»

Era berean, «hausnarketa txiki bat egiteko gonbidapena» ere luzatu nahi izan dute: «denok gaude etxetik atera ezinda. Pentsa zer izan behar den 20 urtez etxean ez, baizik eta gela batean egon beharra».

Elkartasun aldarria, sare sozialetan

Egoera honen aurrean, elkartasuna adierazteko, ekitaldi berezia prestatu dute gaurko. Arratsaldeko 19:00etan hasita, emanaldi berezia ikusi ahal izango da Sare Herriararren Facebook orrialdean, Hamaika Telebistan eta Etxeraten sare sozialetan. Gero, 19:30etan, nork bere aldarrikapenarekin argazkia atera eta sare sozialetara igotzeko eskatu dute, #EtxeanNahiDitugu eta #NiEtxeanGeratukoNaiz traolak erabilita.

Premiazko neurrien aldeko eskaerarekin bat

Bestalde, Errazkinek azaldu du bat egin dutela espetxeekin lotura duten estatu espainoleko 30 elkarterek baino gehiagok, espainiar Barne Ministerioari eta Espetxe Institutioei egindako premiazko neurrien aldeko eskaerarekin. «Eskatzen ditugu bideo-deiak, eta preso gaixoak, 70 urtetik gorakoak edota hirugarren graduak etxean mantentzea. Espetxeetan geratu behar ko lirake beste erremediorik ez dutenak».

Eskaera publikoki egin dutela azaldu du, eta erantzunik ez dutela jaso. «Guretzat erantzun onena litzateke, neurri horiek aplikatzen hastea». **K**

19:00 Etxetik etxera! saio berezia, sareherritarraEH facebooken, @EtxeratElkartea twitterren edo 11Tbn.

19:30 Argazki aldarrikatzaileak sareetan zabaldu, #EtxeanNahiDitugu eta #NiEtxeanGeratukoNaiz traolekin.

«Azaldu beharko dute, heriotza hau lau egunez estali izanaren arrazoia»

COVID-19aren hedapena dela-eta, «momentu zail eta korapilatsua bizitzen» ari garela azaldu du Etxeraterak, eta gogorarazi du «presoek prebentzio eta babes neurri guztiak hartzeko eskubidea» dutela.

ETXERAT ADIERAZPENA

Kezka azaldu du Etxerat elkar-teak, Koronabirusaren aurrean presoek espetxeetan bizi duten egoeraren bueltan. «Gure segurtasuna eta maite ditugunen segurtasuna da gure lehentasuna». Salatu du, «espetxean, dagoen konfinamendurik haundiena izanik, egoera oso ezberdina» dela. «Gatibu dauden pertsonak ez dute aukera guk ditugun neurri eta prebentzio protokoloak jarraitzeko. Ez dute eskularrik, ez alkoholik, ezta ur oxigenaturik ere; zailtasun askorekin, lixiba pote bat lor dezakete. Oso zaila da espetxe barruan segurtasun-distantzia mantentzea, bai gainontzeko presoekin, baita funtzionarioekin ere».

Gogorarazi du, «espetxean dauden pertsonen prebentzio eta babes neurri guztiak hartzeko eskubidea» dutela, «Munduko Osasun Erakundeak dioen bezala», eta Estatua dela «haien integritatea eta bizia bermatu behar duena». Zentzu horretan, salatu du larri gaixo dauden presoek eta 70 urtetik gorakoek espetxean jarraitzea, arrisku taldean sartzen diren honetan, eta hain zuzen, Koronabirusaren eraginez «hainbat patologia zituen 78 urteko emakumea espetxean hil» izana. «Espetxeko agintariek eta aginta-

ri judizialek, haien erantzukizuna presoan bizia babestea delarik, azalpenak eman beharko dituzte 70 urte baino zaharragoa zen pertsona gaixo batek espetxean jarraitzen zuelako, eta heriotza hau lau egunez estali izanaren arrazoia ere azaldu beharko dute».

Bestalde, txalotu egin du Frantzia 5.000 preso kaleratzeko hartutako erabakia, haien artean, osasun larriak dituztenak, baina zalantza azaldu du «Estatu Frantsesak neurri hau gizatasun osoz ezarriko duen edo larri gaixo dauden euskal preso politikoak alde batera utziko dituen».

Azkenik, komunikazioen eten-dura «birusa gehiago ez zabaltzeko» egin dela ulertzen badute ere, «presoek haien familiarekin duten harremana ez galtzeko neurriak» falta dituztela salatu dute.

Horrela, berehalako askatasuna eskatu du larri gaixo dauden, 70 urte baino gehiago dituzten eta baldintzapeko askatasuna lortzeko aukera duten presoentzako, baimenarekin atera diren eta hirugarren graduak dauden presoan kaleratzea, prebentzio eta desinfekzioarako tresna eta neurriak presoari erraztea, mediku-ekipamenduak eta asistentzia indartzea, eta espetxeetan bideo-deiak egiteko sistemak jartzea eta deien gastu ekonomikoa espetxeko administrazioak bere gain hartzea.

· Zure konfiantzazko fisioterapia zentroa ·

KIMERA
Fisioterapia - Osteopatia

www.kimerafisioterapia.com

Hernani - Astigarraga - Donostia

· 638 421 060 ·



Orain whatsapp zerbitzua ere eskuragarri zure hitzordua hartzeko

